

GetxoMeeting, abenduaren 15ean

Elkar ezagutzea eta sarea sortzea: elkarrekin hausnartzea eta partekatzea

Konfiantza edozein harreman komertzialaren oinarria da, baita edozein motatako lankidetzarena ere. Hori dela eta, bigarren saioan bertaratutakoen artean konfiantza-espazioak sortzen jarraitu zen.

Saioan, elkarrizketen bidez, hobetu ezagutu ziren elkar; halaber, elkarrizketa egin zuenak beste enpresak burututako jardueraren irudi bat egin zuen, jasotako erantzunak aintzat hartuta. Ondoren, txanda espres batean, irudiak aurkeztu ziren, eta ez zen umorea faltan egon.

Ekitaldiaren bigarren zatia aholkuak partekatzeko erabili zen.

Denbora-lerro bisual bat sortu zen. Bertan, edozein ekintza komertzialeko fase guztiak aztertu ziren, eta bakoitzak etapa bakoitzean funtzionatzen zaiona eta laguntzen ez diona adierazi ahal izan zuen. Hurrengo saioan sakontzen jarraituko den alderdietako bat izango da hori, hain zuzen ere. Jarduera horren helburua konfiantza-espazioak sortzea da, betiere elkarri lagunduz eta beste pertsonen bizipenez ikasiz.

Izan ere, GetxoMeeting ekimeneko helburu nagusienetako bat konponbideak zein ikaskuntzak partekatuz erkidegoa sortzea da.

Azken ondorio-txandak agerian utzi zituen topaketaren praktikotasuna eta sortutako giro ona, bakoitzak kontaktu baliagarri berriak izateaz gain.

Datorren urtarrilaren 12an eta horren osteko ostegunetan, hurrengo saioak egingo dira, 12:00etatik 14:00etara.

Tokia: GetxoElkartegia (Ogoño kalea, 1, 48930, Areeta, Getxo)

Topaketak doakoak dira, baina parte hartu ahal izateko beharrezkoa da alde zuzenetik izena ematea Getxolanen. Horietako bakoitzerako eman behar da izena, topaketak independenteak baitira. Horri buruzko informazioa jasotzeko edo izena emateko, jar zaitez gurekin harremanetan 94 466 01 40 telefono-zenbakiaren bitartez edo [getxolan@getxo.eus](mailto:getxolan@getxo.eus) helbide elektronikoaren bidez.